

UDAL MUSIKA ESKOLAN EUSKARAZ!

Kaixo, familia!

Etxarri Aranazko Udalak **Euskararen Erabilera normalizatzeko plan berria (2014-2018)** martxan du.

Planaren helburu nagusia izanen da Udalak eskaintzen dituen zerbitzu guztietan, Udal Musika eskola barne, euskararen erabilera indartzea eta bultzatzea.

Hori dela eta, Udal Musika eskolaren barrengo eta kanpoko harremanak euskalduntzen jarraitu behar dugu. Izan ere, duela pare bat urtetik hona, Udal Musika eskolaren euskararen normalizazioan jardunean ari gara.

Plan berriaren baitan, besteak beste, landuko ditugu:

- **Irakasleen euskara jabekuntza/trebakuntza plangintza**
- **Udal Musika eskolako lan hizkuntza euskara izatea**
- **Klasetan zein bileretan euskara nagusi izatea**
- **Komunikaziorako dokumentu guztiak argiak eta errazak izatea**
- **Hizkuntz paisaian euskara nagusi izatea**

Hori guztia erabiltzaileen edo erabiltzaileen gurasoen hizkuntz eskubideak zainduz, noski!

Jakizu, ezinbestekoa zarela Udal Musika eskolaren euskararen normalizazioan eta, horregatik, Udal Musika eskolara zoazenean **egin beti euskaraz!**

Etxarri arantzen, 2015eko maiatzaren 28an

Udal Musika eskolako zuzendaria